

Ez dezagun sumintzeko gaitasuna galdu

Koldo SAGASTI

Egunotan urtebete bete da Israel-ek “behin betiko konponbidea” abian jarri zuenetik Palestinako populazioaren kontra. Mundu mailako erakunde entzutetsuenek, Nazioarteko Justizia Epaitegiak kasu, genozidiotzat hartu dute kanpaina militarra; eta zenbait harago ere joan dira, besteak beste, Mark Pelmutter, Nazioarteko Zirujauen Elkargoko presidenteordea. Medikuei estatubatuar juduak hiru hamarkadako eskarmentua dauka munduan izan diren larrialdi humanitario lazgarrienean, eta azken hilabeteotan Gazako zerrendan izan da lanean. «Misio horietan guztietan ikusi dudana aintzat hartuta ere, Gazako errealtate itzelak ez du parekorik. Triskantza hutsa da. Historiara gizatariaren kapitulu okerrenetako baten

modura pasako den triskantza», aitortu du sendagileak elkarrizketa batean. Infernu horretatik ihesian, iazko azaroan bost familiatako 26 errefuxiatu gazatar iritsi ziren Gasteizera, horietatik 10 adin txikikoak. Espainiako Gobernuak ekarri zituen, estatuan zehar sakabanatutako beste 119ekin batera, larrialdiko harrerarako programa baten barruan. Geroztik bizitoki prekario batetik bestera ibili dira, noraezean, etxebizitza egonkor batera edota bizibide duin batera iristeko aukerarik gabe. Orduan, ekarri zituztenean, mingarria zitzaigun Gazako sarraskia, oraindik estreinatu berria geneukan sumintzeko gaitasuna, eta gisa horretako karitate-keinuek itxura ona ematen zuten albistegietako kontrazalean. Baina 50.000 hildako geroago iritsi gara pales-

tinarren holokaustoa normalizatzeraz, eta normaltasun horren itzalean duela urtebete ustezko borondate onez ekarritako bost familia horiek arazo bilakatu dira. Gauzak horrela, Espainiako administrazioak bukaera emango dio larrialdi programari, errefuxiatu palestinarren afera 76 urtetik gora luzatu den bezala, Gasteizko 26en egoerak ere korda luzea ekarriko duelakoan, eta familiak etxegabetzeko arrisku bizian utzi ditu, kale gorrian. Horrelaxe jokatu du Nazioarteko Komunitateak azken zazpi hamarkadatan palestinarrekin: gatazkaren erroari –alegia, kolonialismo israeldarrari– aurre egin beharrean, utzikeriaren utzikeriaz anormaltasun historiko hori enkistatzen utziz, urtez urte, sumintzeko gaitasuna galtzen dugun arte. •

Korrontearen aurka

Asier ALESTARAN

Korrontearen aurka igeri egitea nekagarria da. Oso nekagarria. Alferrikakoa ere izan liteke, igeri ongi eta gartsu egin da ere, korronteak kontrako norabidean eramane zaitzakeelako. Eta arriskutsua, indarririk gabe geratuz gero erabat korrontearen mende geratuko baita igerialari saiatu eta trebeena ere. Horrelaxe sentitzen gara hainbat eta hainbat guraso, pantailen aurkako borrokan. Mendian sasiak desagerrarazi nahian dabilen kalekumea bezala. Itsasgorari hondarrezko mendiak eginez eutsi nahian. Zeren hau jada ez da hezkuntza, ez da kudeaketa. Hau borroka da. Haurrak ipuin bat erosi du, erosi dionte. Irakurtzeko, gure garaian ipuinak ira-

kurtzeko erosten zirelako. Baina, hara! Ipuinak QR kodeak ditu, mugikorrean eduki gehiagorik “gozatu” ahal izateko. Azkar joan da haurra gurasoengana, pozez zoratzen, mugikorra eskatzera. Pandemiako itxialdiaren garaia dator kit burura. Zenbat gomendio, zenbat aukera... zenbat ikus-entzunezko: ipuinak, abestiak, jokoak, ikuskizunak, bertsoak. Dena klik batean, pantailaren bidez. Amaitu zen pandemia, eta amaitu zen itxialdia, baina pantailak lehen bezainbeste aukera eskaintzen jarraitzen dute, edo gehiago. Berdin du zein den zure zaletasuna, berdin du zein den zure hobb-ya, nahi beste Youtubeko kanal, sare sozialetako kontu edo foro aurkituko dituzu zure jakin-mina asetzeko.

Familiak antolatzen ari dira. Normala da. Irailaren amaieran eman zuten eza-gutzeroa 2019an Gipuzkoan jaio zen Altxa Burua ekimena Bizkaira eta Arabara zabaldu dela. Nafarroa ere bidean omen da. 6.000 familia inguru oraingoz. Helburuen artean, nire ustez gakoa den bat: «Helduak eta seme-alabak erabilera ego-kian trebatzea». Bai, helduak ere bai. Gaztetxo talde bat kalean bakoitza bere mugikorrari begira ikusteak sortzen digun bihotzeko minaren tamainakoak baitira sortzen dizkigun kontraesanak. Gure Whatsapp talde graziosoak, gure zortzi lanorduak ordenagailu baten aurrean, galdu ezin ditugun sareetako bi-deo biralak, Netflixeko telesailak... Korrontearen aurka. Lan zailak. •